

ENERITZ ARTETXE EIZAGIRRE

«Hankak oholtzan mantendu eta bertsotan egitearekin konformatzen naiz»

Eneritz Artetxe (Azkoitia, 1990), tarte batez Txapelketa eta bertso eskola ere utzi ostean, Txapelketara itzuli da eta finaleraino iritsi da.

Udaberrian hasi zenuen lehen saioa eta azken-azken saioraino iritsi zara.

Sorpresaz hartu dut, ez nuen uste txapelketa hain luzea izango zenik, udaberritik hasita udazkenera arte nahiko luze egiten da, ba finaleraino zer esanik ez; eta horri gehituz gero aurreko hilabeteetako prestakuntza, denbora luze egiten da, baina pozik nago. Neke pixka bat antzematen da, baina egindako lanaz gozatu ederra hartuta nago, hobetzeko gauzekin, baina pozik.

Aurreko prestaketak aipatu dituzu, nola landu duzu?

Urte pila bat neramatzan bertso eskola fundamentuz zapaldu gabe, eta duela urte eta erdi edo hasi ginen bertso eskolan, astero bildu eta ohiko ariketak egiten; elkartu, bertsotan egin eta komentatu egiten genuen. Txapelketa aurrera joan den heinean eta ariketak aldatzen joan diren heinean, entrenatzeko ariketak aldatu ditugu, baina prestakuntza modu ohi-koan egin dugu, ezer berezirik egin gabe.

Txapelketa izan da berriro ere bertso eskolan fundamentuz hasteko motiboa?

Txapelketa nire kasuan aitza-  
kia bat gehiago izan da. Duela

bost urte txapelketako saio denetan egotea tokatu zitzaigun, baina oholtza behean, eta inbidia handi-handia pasatu nuen. Bukatutakoan, banekien aurtengo Txapelketan parte hartuko nuela. Aitzakia bat izan da txapelketa hainbeste gustatzen zaigun bertsogintzari eusteko, txapelketarik ez balego seguruenik ez nintzatekeelako berriro ere asteroko dinamika horretan sartuko.

Zuk baino hobeki inork ez du ezagutuko txapelketaren beheko aldea...

Txapelketa hain ondo ezagutzeak ez dakit alde txarrak edo onak dituen, nik, aurtengoa ikusita, esango nuke ondo etorri zaidala txapelketak antolakuntza aldetik zer lan daukan ezagutzea. Balorazioak egiterakoan, edota bestela ere kexatzeko joera dugulako: gai txarrak izan direla, epaileek lana ez dutela ondo egiten... Nik uste dut lan hori guztia ezagutzeak eman didala aukera pixka bat erlatibizatzeke eta balioan jartzeko lan hori bera ere. Eta batez ere, guk kantatu ahal izateko han goizeko zortzietatik lanean zenbat jende dagoen jakiteak balio izan dit.

Gipuzkoako bertsogintza nola sumatzen duzu?

Txapelketan bertan ikusi da belaunaldi berrien parte hartzea nolakoa izan den, eta nik beti foku handiena bertso eskoletan egiten den lanean jartzen dut. Belaunaldi berriak eta diskurtso berriak egotea



zein garrantzitsua den sumatzen dut, hori ez litzateke posible izango bertso eskoletan egiten den lanik gabe. Eta uste dut azken urteetan eman den bilakaera (bai hezkuntza arautuan eta baita bertso eskoletan ere, metodologia aldetik, irakasleen formakuntzan...) nabari dela Eskolartekotik hasi eta Txapelketaraino.

Baduzu ariketa kuttunik?

Norbere bertsokerarekin bat etortzen da askotan gehien gustatzen zaiguna, ni neurri txikiaren oso zalea izan naiz beti. Uste dut bertsotan garrantzitsuena dela besteak entzun, erantzun eta elkarriketaosatzea, eta orduan, bai hamarreko txikiko eta baita zortziko txikiko ariketetan ere izugarri gozatu dut, Altzotik hasi eta Zarautzeraino.

Garrantzitsua da entzutea?

Horrenbeste urtetan bertso eskolara joan gabe egon eta gero, egun batean konturatu nintzen ondoan nuen bertso-  
kidearen bertso bat bera ere ez

nuela entzun ofizioa bukatuta-koan. Hor egin nuen klik bat, eta esan nion nire buruari: “Bertsotan ahaztea da hau, ondokoa entzun gabe kantari hastea”. Arreta berezia jarri dut hor, batzuetan obsesionatzeraino. Baina nik uste dut esaten dugunean plazako kutsua eman behar zaiola txapelketari, horretaz ari garela; biren arteko lana egiten saiatzen ez bagara, nahiko zaila izaten da luzitzea.

Illunberako asmo zehatzik ba al duzu? Zarauzko azken agurrean sustoa aipatu zenuen...

Sustoak astebete iraun zidan finaleko aukerarekin, baina ja %100 finalean kokatuta, ez dut asmo berezirik. Nik uste dut txapelketa osoan egin dadana egiteko gai baldin banaiz Illunben, besterik ezin dudala eskatu. Ea plaza ez zaigun handi geratzen eta hankak oholtzan mantentzea lortzen dugun, han egoten asmatu eta guretik pixka bat uzten dugun, bertsotan egitearekin konformatzen naiz.